

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015071
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	3. DK
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	ZIENTZIA, MATEMATIKA ETA TEKNOLOGIA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	Biologia eta geologia, fisika eta kimika, matematika eta teknologia		
<b>diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Matematikarako kompetentzia</li> <li>2. Zientziarako kompetentzia</li> <li>3. Teknologiarako kompetentzia</li> </ol>		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	EUKENE ANDRADE	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	22-23

**Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:**

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko ezagutzak erabiltzea gorputzaren zainketa eta osasunaz arduratzeko ohiturak garatu eta sendotzea.</li> <li>• Arazoak konpontzeko bakoitzak dituen gaitasunak eta darabiltzan estrategiak ezagutu eta balioestea, Zientziaren eta Teknologiaren</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrera eta ohitura ezberdinen egokitasuna arrazoitzea osasunarengan duten eraginaren arabera.</li> <li>• Giza gorputzaren funtzionamenduari buruzko ezagutzez baliatzea.</li> <li>• Ikuspegi zientifiko eta sozial batetik, ingurunean eragiten duten arazo larrirenetako batzuk identifikatu eta aztertzen ditu.</li> </ul>

<p>prozedura eta jarrerekin bat etorrira eta horiez baliatzeak eskatzen duten eguneroko egoerei aurre egiteko bere alderdi sortzaile, manipulatzaileak, estetiko edo utilitarioekin gozatuz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintza zientifiko-teknologikoen antolakuntza eta plangintzan taldeka parte hartzea, norberaren eta besteen ekarpenak lortu beharreko helburuen arabera epaituz, elkarkidetzarako jarrera malgua erakutsiz, zereginak burutzeko garaian ardurak hartuz eta arraza, sexu, gizarte-maila, sinesmen zein bestelako bereizgarri sozial edo indibidualengatiko diskriminazio oro arbuatuz.</li> <li>• Ezagutza zientifiko-teknologikoez baliatzea naturako fenomeno garrantzitsuenak eta objektu teknologikoak interpretatu eta garapen zientifiko-teknologikoak gizartean eta ingurugiroan dituen eraginak kritikoki epaitzeko, honekiko begirune, babes eta hobekuntza- jokamoldeak hartuz.</li> <li>• Datu eta informazio bilaketa, bilketa eta antolakuntza teknikak erabiltzea arazoak konpondu eta lan eta ikerkuntzak burutzeko.</li> <li>• Mezu zientifiko-teknologikoak zuzen ulertu eta adieraztea, dagokien hiztegia, baliabide grafikoak eta sinbologia erabiliz.</li> <li>• Arazoak ebazterakoan ikasleen interesen inguruko estrategia ezberdinak burutu eta erabiltzea, zientzia-teknologia esparruari dagozkion prozedurak erabiliz eta ebazpenerako erabilitako jarraipidea kritikoki epaituz.</li> <li>• Zientziak eta Teknologia gizakien bizi-kalitatea hobetzeko egindako ekarpenak aintzatetsi, eta horiez baliatzeak dakartzan ondorioekiko jarrera kritiko eta arrazoitua erakustea, heziketa zientifikoaren eta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurugiroko arazoan aurrean jarrera kritikoa hartzen du, ingurune hurbila zaindu eta hobetzeko ekintzetan parte hartuz.</li> <li>• Zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten eguneroko arazoak konpontzeko estrategia ezberdinez baliatzen da ezagutza zientifiko, teknologiko eta matematikoen erabilera eraginkor eta arrazoitua eginez.</li> <li>• Konponbideak bilatzeko garaian iraunkortasuna, segurtasuna eta autonomia erakusten du.</li> <li>• Taldean izaera zientifiko eta teknologikoko jarduerak antolatu eta garatzen ditu, ezarritako helburuen arabera, taldea antolatzeko eta eginkizunak banatzeko irizpide egokiak erabiliz, eta jarrerak partehartzaileak eta ez diskriminatzaileak erakutsiz.</li> <li>• Beren ezagutza zientifiko-teknologikoak erabili naturako fenomenoak eta eguneroko bizitzako egoerak interpretatzen ditu</li> <li>• Gizakiaren jarduerak ingurugiroan izandako ondorioak gaitzesten ditu</li> <li>• Zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten lan eta ikerketak burutzea, informazio-iturri ezberdinak egoki erabiliz eta hautatutako informazioa behar bezala landu eta antolatuz</li> <li>• Emaitzak modu argi eta ordenatuan aurkezten ditu.</li> <li>• Informazio zientifiko-teknologikoak interpretatu eta plazaratzen ditu baliabide ezberdinak behar bezala erabiliz.</li> <li>• Objektu teknologiko errazak proiektatu, diseinatu eta eraikitzen ditu, lan-egitasmo logiko bati jarraiki eta tresna materialak eta jarduera teknologikoari dagozkion eragiketak behar bezala erabiliz eta ikasitako baliabide, grafiko eta sinbologiaz baliatuz.</li> <li>• Energia kontzeptua eta bere propietateak erabiltzen ditu naturako eta eguneroko fenomeno batzuk azaltzeko, ekonomiaren garapenerako eta bizi-kalitaterako duen garrantzia balioetsiz.</li> </ul>
--	---

<p>eguneroko bizitzan pentsamolde zientifikoari dagozkion balio eta jarrerak erabiltzeak duen garrantzia nabarmenduz.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zientzia-teknologia esparruko ezagutza une historiko bakoitzeko ezaugarri eta premiei lotutako eta etengabe garatzen eta berrikusten ari den eraikitze-prozesu gisa ulertzea.</li> <li>• Informazio- eta komunikazio-teknologiak zuzen erabiltzea (kalkulagailuak, ordenagailuak,...) arrazoituz eta argudioak emanez, kalkuluak ondo egiteko.</li> <li>• Laborategietan, tailerrean eta klasean segurtasun arauak mantentzea, istripuak ez izateko.</li> <li>• klasean eta etxean egin behar dituen lanak eginda koadernoan edo Classroom-ean edukitzea aurkezpen egokiaz landutako kontzeptuak indartzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurunearen hondamenean duen eraginaren gainean kontzientzia kritikoa azaltzen du.</li> <li>• Ezagutza zientifikoaren etengabe berrikusten eta garatzen ari den talde-mailako eraikuntza-prozesu gisa ulertzen du, eskuratutako ikasketen izaera ez bukatua eta ez behinbetikoa nabarmenduz.</li> <li>• Zientzia eta teknologiak gizakion bizi-baldintzen hobetze edo okerragotzean izandako ekarpenak arrazoiak emanez baloratzen ditu, eta hurbileko egoerei buruz irizpide pertsonal arrazoituak garatzen ditu.</li> <li>• IIKT tresnak eta kalkulagailua erabiltzen ditu eta ulertzen du eguneroko lana erazten dutela.</li> <li>• Materiala errespetatzen du.</li> <li>• Laborategian eta tailerrean bete behar dituen arauak ezagutzen eta betetzen ditu.</li> <li>• Materiala errespetatzen du.</li> <li>• Laborategian egindako ikerketak burutzen ditu planifikazioa egokia egiten du eta ondorioak ateratzen ditu.</li> <li>• Laborategian landutako ezagutzak ulertzen ditu.</li> <li>• Etxerako lanak egiten ditu.</li> <li>• Koadernoan eta Classroom-eko klase desberdinak era egokian antolatzen du eta ariketa guztiak eginda eta zuzenduta dauzka.</li> </ul>
--	--

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

**SITUACIÓN PROBLEMA** [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. arazo egoera / Situación problema 1: NUTRIZIOA ETA OSASUNA**

**Testuingurua:** Gaur egun dieta mota asko eskaintzen dizkigute sare sozialetan, telebistan edo beste inguruko iturritik.

**Arazo egoera:** Ikertu nahiko genuke ea benetan egokiak eta osasungarriak diren edo moda kontua besterik ez.

**Zeregina:** Ikasleek nutrizionisten rola hartuko dute, instragamer nutrizionista profesionalak izango dira. Bikoteka, dieta jakin batzuen analisia egin beharko dute. Ondoren, euren instagrameko jarraitzaileei ikerketa honen emaitzak (onurak eta kalteak) erakusteko bideo bat sortu beharko dute.

- **2. arazo egoera / Situación problema 2: IBAIALDE**

**Testuingurua:** ingurunearen eta pertsonen arteko lotura eta harreman zuzena ezarri nahi da, ibai-ekosistema modu aktiboan eta esperimentalean aztertuz.

**Arazoa:** ibaiari buruzko datuak Bildu nahi dira hauen kalitatea nolakoa den aztertzeko.

**Ataza:** ikasleak ibaira hurbildu behar dira, ikusten dutena arretaz ikertuz eta informazio sorta bat biltzen duten galdetegi erraz batzuk osatuz. Bertan, ibaiari buruzko datu orokorrak jasotzen dira, baita ibaiaren ezaugarri fisiko eta biologikoei, uraren kalitateari, zaborren presentziari eta gizakiak eragindako inpaktuari buruzkoak ere.

- **3. arazo egoera / Situación problema 3: ELIKAGAIK ONTZIRATZEKO ERABILTZEN DIREN PLASTIKO GUZTIK BERDINAK DIRA?**

**Testuingurua:** Elikagaiak ontziratzeko, plastikoa da gehien erabiltzen den ontzia eta, aldi berean, horixe da ezabatzeko zailena. Plastikoa mota askotakoak izan daitezke, eta erabilera anitz ere badituzte. Guzti guztien ezaugarria da arinak, hauskaitzak eta fabrikatzeko merkeak izatea. Horregatik hainbeste erabiltzen dira, kartoizko eta beirazko ontziekin alderatuta. Gure zaborretatik, % 10-a plastikoz osatuta dago, plastiko hori mota askotakoa izanik. Plastikoei arazoak sortzen dituzte zaborregietan, leku asko betetzen dutelako, batzuk kutsagarriak direlako eta, geldiro geldiro, degradatu egiten direlako. Plastikoa beste zaborretatik bananduz gero, guztion onerako baloriza daitezke, eta hala egin behar da.

**Arazoa:** Elikagaiak ontziratzeko erabiltzen diren plastiko guztiak berdinak dira?

**Ataza:** Elikagaiak ontziratzeko erabiltzen diren plastikoei buruzko ikerketa bat egin, jakiteko zeintzuk diren ohikoenak, gero propietateak eta erabilerak ezagutu eta birziklagarriak ala ez diren ikertzea eta dokumentu bat sortu ikerketaren emaitzekin ahozko aurkezpen bat egiteko.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektua, ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

<b>BIOLOGIA ETA GEOLOGIA</b>	<b>FISIKA ETA KIMIKA</b>	<b>MATEMATIKA</b>	<b>TEKNOLOGIA</b>
<p><b>1. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Giza gorputzaren antolakuntza</li> <li>2. Giza elikadura</li> <li>3. Digestio eta arnas aparatua</li> <li>4. Zirkulazio eta iraitz aparatua</li> </ol> <p><b>2. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>5. Nerbio sistema eta sistema endokrinoa</li> <li>6. Zentzumenak eta lokomozio aparatua</li> <li>7. Giza ugalketa</li> <li>8. Osasuna eta gaixotasuna</li> </ol> <p><b>3. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>9. Kanpo geologia</li> <li>10. Ingurumenaren gaineko eraginak</li> <li>11. Natura baliabideak</li> </ol>	<p><b>1. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Materiaren propietatea eta neurketa</li> <li>2. Materiaren egoera fisikoak</li> <li>3. Materia nola ageri den</li> </ol> <p><b>2. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. Materiaren propietate elektrikoa eta atomoa</li> <li>5. Elementu eta konposatu kimikoak</li> </ol> <p><b>3. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>6. Aldaketa kimikoak</li> <li>7. Kimika jardunean</li> <li>8. Elektrizitatea</li> </ol>	<p><b>1. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zatikiak eta hamartarrak</li> <li>2. Berreketak eta erroak. Zenbaki hurbilduak</li> <li>3. Progresioak</li> <li>4. Hizkuntza aljebraikoa</li> </ol> <p><b>2. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>5. Ekuazioak</li> <li>6. Ekuazio-sistemak</li> <li>7. Funtzioak eta grafikoak</li> <li>8. Funtzio linealak</li> </ol> <p><b>3. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>9. Problema metrikoak planoan</li> <li>10. Gorputz geometrikoak</li> <li>11. Transformazio geometrikoak</li> <li>12. Estatistika</li> <li>13. Zoria eta probabilitatea</li> </ol>	<p><b>1. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Zer da teknologia?</li> <li>2. Adierazpen-sistemak</li> <li>3. Proiektua I</li> </ol> <p><b>2. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>4. Elektrizitatea</li> <li>5. Proiektua II</li> <li>6. Proiektua III</li> </ol> <p><b>3. <u>Ebaluazioa</u></b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>7. Erabilera teknikoko materialak (naturalak eta eraldatuak)</li> <li>8. Proiektua IV</li> </ol>

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

Ezinbestekoa da taldearen aniztasuna zaintzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea eta talde giro ona sustatzea, horrela irakaskuntza-ikaskuntza prozesua erraztuko baitu. Metodologia aktibo eta motibatzailea erabiliko dugu.

- Bakoitzaren erritmoa zainduko da
- Ikasleak autonomoak izatea eta talde lana ere sustatuko da.
- Ikaslea protagonista izango da, motibatzeko.
- Programazioa malgua izango da, behar izatekotan etengabeko egokitzapenekin.
- Oinarrizko gaitasunak garatzeko eta barneratzeko, ikasleek aurretik dituzten ideiak eta ezagutzak, ikasleen ezaugarriak, ikasturtea eta ikasgaia kontuan hartuko dira.
- Irakasle eta ikasleen komunikazio beharrezkoetarako Gmail-a erabiliko da eta ikasleek irakasleak
- Eskakizun maila progresiboa izango da, erronkak emanez hauek gainditzeko.
  
- Classroom-en materiala erabilgarri izango dute.
- Ikasgai eta gai bakoitzean azalpenak argiak eta errazak izango dira, baliabide desberdinak erabiliz hobeto ulertzeko, bideoak, internet, arbela digitala ...
- Ikasleek Chromebook-ak erabiliko dituzte lanak egiteko eta liburu digitalak erabiltzeko.
- Laborategian, klasean azaldutakoa ikusteko aukera izango dute eta teknologia tailerren ere bai.
- Arlo desberdinetatik antolatzen diren irteeretan parte hartuko dute.

### **Baliabideak**

- Biologia eta geologia: DBH 3 Santillana-Zubia egokitzapen liburua
- Fisika eta kimika: DBH 3 Santillana-Zubia egokitzapen liburua
- Matematika: DBH 3 Anaya-Haritza egokitzapen liburua
- Teknologia: liburu eta web desberdinetako materiala, irakasleak emanda.
- Irakasgai guztietan: web orriak eta irakasleak entregatutako materiala (fitxak, power pointak, ...)
- Gelako ordenagailua eta proiektorea
- Laborategia
- Teknologia gela

### **Irakurketa plana**

Ikasleek astean ordu bat, dagokion orduan (astero desberdina) ikastetxeko irakurketa plana jarraituko dute. Arlo zientifiko-teknologikoari dagokionez, urte guztian zehar ikasleek aurkitutako edo gustuko dituzten albisteak ekarriko dituzte eta klasean irakurriko dituzte.

### **Agenda 2030**

Agenda honen helburua mundu osoan giza garapen jasangarriaren alde borrokatzeko tresna bat izatea da, eta pobrezia errotik desagerraraztea, ahultasunak eta desberdintasunak murriztea eta jasangarritasuna sustatzea ditu fun tsezko oinarri. Aukera paregabea da 2030. urtea baino lehen mundua eraldatzeko eta pertsona guztientzako giza eskubideak bermatzeko. 2030 Agenda unibertsala da. Agenda horren bidez, pertsona guztiek garapen-behar berak dituztela aitortu da, non bizi diren alde batera utzita. Pertsona guztiek behar dute osasuna, hezkuntza, etxebizitza, enplegua, energia, berdintasuna, bakea eta

ekosistema osasuntsuak, duintasunez bizitzeko, orain nahiz etorkizunean. Institututik aurrera eramango dira proiektu eta jarduera desberdinak gure ikasleek barneratzeko aurrean daukagun erronka.

#### **Hezkidetza**

Hezkidetza, bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den hezkuntza da, hau da, irispide sexistei jarraiki gizon eta emakumeei egokitutako rol, balio eta jarrerak kontuan hartu gabe heztea da. Institututik aurrera eramango dira proiektu eta jarduera desberdinak gure ikasleek barneratzeko aurrean daukagun erronka.

#### **Normalkuntza**

Proiektu honen helburu nagusia, ikasleek hizkuntza gaitasuna garatzea osotasunez: idatzi zein ahoz, arlo guztietan. Institutuko aurtengo helburua, ikasleek irakasleari euskaraz erantzutea eta irakaslearengana euskaraz zuzentzea beti gelan zein gelatik kanpo. Horretarako jarduera desberdinak proposatuko dira ikasturtean zehar.

<p><b>EBALUAZIO-TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b> [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...].</p>	<p><b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p><b>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN</b> [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>● <b>Froga idatziak (azterketak)</b></li>   <li>● <b>Gelan egindako lana:</b> eguneroko lana nola eramaten duen aurrera</li> <li>● Koadernoak</li> <li>● Etxerako lanak</li> <li>● Ikasgaiarekiko jarrera</li>   <li>● <b>Jarrera:</b> errespetua (irakaslearekiko eta ikasleekiko), puntualtasuna, euskararen erabilera eta txukuntasuna (gelarekiko). Atal hau suspendituz gero ebaluazioa suspendituta geratzen da. Gainerako emaitzak gordeko dira.</li> </ul>	<p><b>% 40:</b> azterketa edo kontrol guztietan gutxieneko nota <b>3'5</b> ekoa izan behar da batez bestekoa egiteko. Errekuperaziorik eginez nota <b>5</b> izan behar da gainditzeko.</p> <p><b>% 10</b></p> <p><b>%10</b></p> <p><b>%10</b></p> <p><b>%10</b></p> <p><b>% 20:</b> atal hau gainditzea <b>EZINBESTEKOA</b> da ikasgaia gainditu ahal izateko.</p>
<p><u>Ekaineko notetan</u>, esparruko nota kalkulatzeko, ikasgai guztien gutxieneko nota 3'5 izan behar da eta batez bestekoa kalkulatzeko da honako proportzioak jarraituz.</p>	<p>%25 matematika</p> <p>%25 fisika eta kimika</p> <p>%25 biologia eta geologia</p> <p>%25 teknologia</p> <p><b>Esparrua gainditzeko gutxieneko puntuazioa 5 da</b></p>



**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

**CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].

**Ebaluazioen berreskurapena:** etengabeko ebaluazioa da. Hala ere, beharrezkoa ikusten denean, ebaluazioan gairitu gabeko edukiak errekupeatzeko sistema ikaslearekin adostuko da. Irakasleak ikasleari ebaluazio irizpideen arabera eta ikaslearen ezagupen maila kontuan harturik, berreskuratzeko sistema batzuk (azterketa – idatzia zein ahozkoa- , banakako lana, errefortzu neurriak...) proposatuko dizkio.

- Gairitzen ez den zatia soilik berreskuratuko da, dagokion eran: lana bada, berriro eginez, azterketak badira berreskurapenak eginda, koadernoak bada berriro ordenatua eta osatua aurkeztuz.....
- Errefortzu ariketak bidaliko dira etxean egiteko, eta epe jakin batean entregatuko dituzte. Irakasleak zuzenduko ditu eta akatsak komentatuko ditu. Lana osorik entregatu behar da eta gutxienez % 75 ondo egon behar da, gairidituztat hartzeko.
- Jarrera gairitzeko, hurrengo hiruhilbeterako kontratuak edo paktuak egingo dira, hau da, jarrera ona izanda errekupeatuko da.

**Aurreko ikasturteko pendienteak** (1, 2 eta 3.mailakoak): udako lana baldin badute, jasoko diegu eta ebaluatua izango da. Honez gain, 1. edo 2. ebaluazioak gairidituz gero eta HEDATZE programara etorri gero, aurreko urteko pendientea gairidituta geratuko zaie (behin gairidituta ez daude behartuta hedatzera etortzera). Honela ez balitz, 2.ebaluazioaren ondoren, errefortzu-lana eta honetan oinarritutako proba egingo zaie. Berriro ere ez badute gairitzen, kurtso bukaeran berreskuratzeko beste aukera izango dute. Momentuan adostuko dugu sistema: banakako lana, idatzizko azterketa, errefortzu neurriak...

#### **Ohiko deialdia**

Ohiko deialdietan legeak dioena aplikatuko da.

#### **OHARRAK / OBSERVACIONES**

--